

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Atzerriko 34 enbaxadore Nafarroa bisitatzen ari dira bertako energia berriztagarrien zentro nagusiak ezagutzeko

*Barcina Lehendakariak, enbaxadoreak iristean egindako harreran, azpimarratu du elektrizitate-kontsumoaren % 81,15 iturri garbietatik datorrela*

Jueves, 15 de septiembre de 2011

Espainian akreditatutako 34 enbaxada atzeritarren ordezkariak Nafarroara bidaiatu dute gaur Foru Erkidegoko energia berriztagarrien instalazio nagusiak ezagutzeko.

Programa Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak diplomatikoei egindako harrera-ekitaldiarekin hasi da, eta programa horren barnean honako bisita hauek ere sartzen dira: Sarriguren-go Energia Berriztagarrien Zentro Nazionalaren egoitzara (CENER), Acciona-k inguruan duen Energia Berriztagarrien Kontrol Zentrora, Gamesak Agoitzen duen Palen Fabrikara, CENERek Zangozan duen Aerosorgailuen Entsegu Laborategira eta udalerri horretako Accionaren Biomasa Fabrikara

Nafarroako Jauregiaren Tronu Aretoan egin den harrera-ekitaldian, Barcinak nabarmendu du "Foru Erkidegoa munduko erreferentzi bihurtu dela energia garbien ekoizpenean, batez ere jatorri eolikoa duten energietan". Gaur egun, iturri berriztagarriek sortutako elektrizitatea Nafarroan kontsumitzen den elektrizitatearen azken kontsumoaren % 81.15aren baliokidea da. Lehendakariak azaldu duenez, helburua "energia berriztagarrien ekoizpena Nafarroa lehiakorra den iturri guztietan sustatzea da" 2015ean % 87a sortzeko.



Barcina Lehendakaria enbaxadoreen aurrean egindako agerraldian.

Diplomatikoez gain,  
ekitaldian honako hauek izan  
dira: Landa Garapen, Industria,  
Enplegu eta Ingurumen  
Departamentuko kontseilari  
Lourdes Goicoechea;  
Gobernuaren ordezkari Elma  
Saiz; Gobernu zentralako

Nazioarteko Harreman Ekonomiko eta Energia Gaietarako  
zuzendari nagusi José Eugenio Salarich, bai eta Atzerri  
Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioiko eta enpresa  
laguntzaileetako beste ordezkari batzuk ere



Barcina Lehendakaria agintarien alboan.

Jardunaldia Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioak (MAEC) antolatu du, eta babesle izan ditu: Nafarroako Gobernua, Energia Berriztagarrien Zentro Nazionala eta Gamesa eta Acciona enpresak.

Bisitan ondorengo herrialdeetako enbaxadoreak izan dira: Australia (Zorika Mcarthy), Austria (Rudolf Lennkh), Bolivia (María del Carmen Almendras), Brasil (Paulo Cesar de Oliveira), Kanada (Graham Shantz), Zipre (Antonis Toumazis), Kolonbia (Orlando Sardi), Korea (Dae-sung Oh), Kroazia (Neven Pelicarić), El Salvador (Edgardo Suárez), Estonia (Toomas Kahur), Filipinas (Carlos Salinas), Gambia (Kebba S. Touray), Guatemala (Anamaría Díeguez), Haiti (Yolette Azor-Charles), Hungaria (Edit Bucsi), Indonesia (Adiyatwidi Adiwoso), Irlanda (Justin Harman), Israel (Alon Bar), Kazajastan (Yergali Bulegenov), Kenya (Bramwel Kisuya), Lituania (Audra Plepyte), Malaysia (Ilankovan Kolandavelu), Portugal (Alvaro Mendonça), Serbia (Jela Bacoviv), Suedia (Cecilia Julin), Suitza (Urs Ziswiler), Ukraina (Anatoliy Scherba), Uruguai (Carlos Pita) eta Vietnam (Truong Trieu).

Gainera, Alemania (Thomas Neisinger), AEB (Ari Nathan), India (Biraja Prasad) eta Erresuma Batuko (Derek Doyle) enbaxadetako diplomaziako goi-funtzionarioak bertaratu dira.

## Galería de fotos



Diplomatikoek Cener-era egindako bisita.